



Ormaiztegi Udala

2018ko abenduaren 26ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIOA

ORMAIZTEGIIn, 2018ko abenduaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA Udalbatzarreko Presidentearen lehendakaritzapean, BATZARRE EZOHIOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.
- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.
- Josu Mirena MAIORA ORIA Jna.
- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Jose Maria IURRITA ARREGI Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatur:

- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Aitor IURRITA ZABALA Jna.
- Olaia IZAGIRRE CRUZ And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Inor ez.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

LEHENENGO PUNTUA:

ORMAIZTEGIKO HILERRIAN KOLUNBARIO ZERBITZUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASERAKO ONARPENA.

Alkate jaunak hitza hartu du eta, Ormaiztegi hilerrian kolunbario zerbitzua arautzeko Udal Ordenantzaren haserako onarpena proposatu du, aurretik batzorde informatiboan landutakoa.

Idazkariak aipatu du 2018. Urteko Araudi Planean Hilerria arautzeko Erregelamendua eguneratzea aurreikusita zegoela baina aurrean ezin izan dela egin, batetik, udaleko lan kargarengatik, bestetik, gaia nahiko konplexua delako eta, herritarren eskubideetatik aparte, sentimenduetan ere eragiten duen gaia delako.

...//...

O-18/08-01



Ormaiztegui Udala

...//...

Alkateak adierazi du, aldiz, kolunbario zerbitzua ekarpen berria dela, herritarrek eskatutakoa, eta ez dela aurreikusten gastu esanguratsua ekarriko duenik, hortaz, gai honi orain heltzea proposatzen duela eta hilerria, bere osotasunean, arautzea aurrerago egiteko utziko lukeela.

Idazkariak Urdal Ordenantzaren testua udalkideen esku utzi du eta, beste interbentziorik izan ez denez, bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez eman zaio haserako onarpena.

BIGARREN PUNTUA:

ADINEKO PERTSONENTZAT EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASERAKO ONARPENA.

Alkate jaunak hitza hartu du eta Adineko Pertsonentzat Eguneko Arretarako Zerbitzua arautzeko Udal Ordenantzaren haserako onarpena proposatu du, aurretik batzorde informatiboan landutakoa.

Alkateak azaldu du Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin eta haien gidaritzapean antolatuko den zerbitzu berria dela; momentuz, ormaiztegiarrek eta ezkiotarrek jasoko dutela zerbitzua baina litekeena dela aurrerago Gabiriako eta Itsasoko biztanleei zerbitzua ematea, eskaintza egin baitzaie herri horietako Udalei ere.

Ondoren, eztabaida ireki da baina ez da ekarpenik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez eman zaio haserako onarpena.

HIRUGARREN PUNTUA:

2019RAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN HASERAKO ONARPENA.

Idazkariak azaldu du Aurrekontuaren haserako onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egunez egongo dela erakustaldi publikoan eta orduan egin ditzakeela edozein interesatuk nahi dituen alegazioak eta ekarpenak.

Beñat Hach Embarek zinegotziak galdetu du ea hamabost egunak lanegunak diren eta baietz erantzun dio idazkariak.

Eztabaida ireki da, baina, aurretik batzorde informatiboan ere landutako gaia izanik, ez da ekarpen berririk izan eta bozkatu egin da. Aldeko botoak lau izan dira eta aurkako botoak hiru. Hortaz, haserako onarpena eman zaio 2019ko Aurrekontu Orokorrari.

LAUGARREN PUNTUA:

2019rako Udal lan egutegia onartzea.

Jose M. Iurrita zinegotziak galdetu du ea lan egutegia Osoko Bilkurak onartu behar duen.



Ormaiztegui Udala

...//...

Idazkariak erantzun dio Osoko Bilkura dela eskumena duena eta, udal langileen egutegia izatetik aparte, Udalaren beraren lan egutegia dela.

Iurrita jaunak adierazi du hainbat herritar kexu direla Udaletxea abuztuan ixten delako, bertako langileak funtzionarioak izan arren.

Idazkariak azaldu du aurreko urteetan bi astez itxi dela, funtzionarioak ere langileak direlako, eta edozein langilek bezala, oporrak egiteko eskubidea dutelako, eta ez delako ordezkorik jartzen. Horri erantsi dio Ormaiztegui plantilla oso motz geratzen dela dituen einkizunetarako eta antzeko beste herri batzuekin alderatuta.

Horretaz aparte, administrazio elektronikoa dagoenetik, Udal Lehiatila zabalik dagoela esan du 24 ordu egunean 365 egun urtean, bai eskaerak aurkezteko, bai obra proiektuak, baita era guztietako eskaintzak, erreklamazioak, proposamenak, eta abar egiteko ere.

Azkenik, idazkariak aipatu du 2019ko lan egutegian ez dela sartu abuztuan bi astez Udaletxea ixteko aurreikuspena, sei hilabete barru hauteskundeak izanik, uztaitetik aurrera beste korporazio bat izan daitekeelako eta horren erabaki ahalmena errespetatu nahi izan delako.

BOSTGARREN PUNTUA:

1/2013 FORU ARAUAREN 5.3. ARTIKULUKO KOMUNIKAZIOA

Alkateak azaldu du Foru Aldundiak Osoko Bilkurari idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena komunikatzeko beharra jakinarazi duela eta horregatik ekarri dela gai hori bilerara. Ondoren hitza eman dio idazkari-kontuhartzaileari txostenaren edukiaren berri emateko.

Idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du 2017ko aurrekontuak ez zuela gastu araua betetzen, Eskola Zaharren eraikina eraberritzeko gastuak legez ezarritako muga gainditzen zuelako. Hori justifikatzeko Plan Ekonomiko-finantzieroa aurkeztu zela Aldundian eta han ontzat eman zutela azaldu du.

Aurten 2017ko ekitaldiaren likidazioa egitean, argi geratu dela esan du gastu araua altxortegi gerakinarekin ordaindu zela eta, orain Aldundira bidali beharreko txostenean adierazten denez, bermatuta dagoela Udalaren finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako, ezusteko eragiketarik gertatu ezean. Udalkideen esku utzi du txostena idazkari-kontuhartzaileak.

Galderak egiteko aukera eman zaie udalkideei baina ez da galderarik izan.

SEIGARREN PUNTUA:

ERREGUAK ETA GALDERAK

Idazkariak adierazi du udal arkitekto aholkulariaren kontratua bukatzeaz dagoela eta berria

...//...

O-18/08-03



Ormaiztegui Udala

...//...

prestatu behar izan dela. Azaldu du prozedura irekiaren bitartez eskaini behar dela kontratua eta jasotzen den eskaintzarik onenari eman behar zaiola.

Horri gehitu dio ahalegin berezia egin dela, Legeak ezartzen dituen obligazioak betetze aldera, lizitazio elektronikoa martxan jartzeko, eta hirigintzako kontratu hori izango dela Ormaiztegui Udalean elektronikoki lehen aldiz lizitatuko den kontratua.

Azkenik, aipatu du momentuz elektronikoki lizitatzen ari diren inguruko Udalak Legazpi eta Ikaztegieta direla, eta gehien-gehienak (Udal handiak barne) ez dutela oraindik sistema berria martxan jarri, hortaz, Ormaiztegui Udala lehenengoetarikoa izango dela.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 18:30 ordu direnean, bilkura amaitutzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2018ko abenduaren 27an.
Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...

O-18/08-04